


Termita



Garazi Albizua

Itzultzailea: Montorio Uribarren, Bego

Bilduma: Narratiba, 169

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 144

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2026-06-18

ISBN-a: 978-84-1093-089-6

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

20,00 €



Gaztelaniazko Euskadi Literatura Saria 2025

Amamarekin bizi den eta teleoperadore diharduen emakume jada ez hain gazte baten egunerokoa kontatzen du *Termitak*, lehen pertsonan. Ahots narratibo hori errebeldea eta makarra da, aurretik ezin iragarritzkoa eta ironikoa. Ez du betetzen gizarte patriarkalak emakumeei ezartzen dizkien eruedetako bat bera ere; haren gorputz ez normatiboak, sexualitate asegaitzak, zaintzaile paperari uko egiteak eta ama ez izateak izaki marjinal bihurtzen dute besteen begien aurrean. Alabaina, ahots narratiboa oldartu egiten zaio marjinaltasun horri, ez du biktima egoeratik hitz egiten, ez du pena eman nahi, ez du enpatiaz baliatu nahi. Inolako errukirik gabe mintzo da, kapitulu laburretan, idatz molde aratz eta sendoaz, elipsiak eta isiluneak bikain baliatuz.

Dena blaitzen duen aura punk triste batez inguratuz, inolako trabarik gabe hausnartzen du janariarekin duen harremanaz, sexuaz, lan zapalketaz, maitasunez; agertzen du nola pobrezia eta gizarte-bazterketa heredatzen diren, nola iraganeko bortxak birsortu egiten diren, belaunaldiz belaunaldi, pribilegio gutxien duten emeen gorputzetan. Eta biloba eta amama baten arteko maitasuna ere adierazten du, estereotipoak hautsiz eta orijinaltasun handiz. *Termitak* aurre egiten die gizarte eta familia konbentzioei, kapitalismoaren lan- eta afektibitate-betebeharrei. Eta aurre egiten die, baita ere, nobelaren eta fikzioaren eredu eta egiturei.

Garazi Albizua



Garazi Albizua, (Santurtzi, 1985).

Idazlea, gidoilaria eta komikigilea da. Hainbat irakurketa klub eta sormen idazketa tailer dinamizatu ditu. 2025ean, Euskadi Literatur saria irabazi zuen *Termita* eleberri honengatik. Hauek ditu beste lanetako batzuk: *Ahotsak gara* (2025); *Egunen akabera* (2024); *Aita ona* (2024); *Gaizkileen galtzada* (2023); *Iruleak* (2022); *Lara de Altopico* (2021), *Lea ipurterrea* (2021); *Geun* (2019); *Izadia* (2018); *Kemena* (2017) eta *Nola egiten dute dotokek?* (2015).